

ARKARA SARTZEKO ILARAN

Testua: ANTONIS PAPTHEODOULOU

Irudiak: IRIS SAMARTZI

Itzulpena: JONE IRAZU GARIKANO

Kartoi gogorrean egina. 16,5 x 30 cm. 36 or. 15 €.

Orri zabalgarriak ditu.

Arkara sartzeko ilaran (euskara)

ISBN 978-84-9172-213-7. Autore liburuak.

En la cola para el Arca (gaztelania)

ISBN 978-84-1343-067-6. Obras de autor. Primeros lectores.

Na cola para a Arca (galegoa)

ISBN 978-84-1343-066-9. Demademora

A la cua de l'Arca (katalana)

ISBN 978-84-18558-10-8. Obres d'autor. Primers lectors.

Na fila para a Arca (portugesesa)

ISBN 978-989-749-141-2. Obras de autor. Primeiros leitores.

In coda per l'Arca (italiera)

ISBN 978-84-1343-068-3. Gli albi d'autore. Primi lettori.


- Ai ene! Justu-justu heldu gara. Azkenak izango gara sartzen.

- Hau da Arkara sartzeko ilara, ezta?

Antzerkiari egindako omenaldi umoretsua da «Arkara sartzeko ilaran». Katramila komiko baten bitartez, zentzu bikoitzak eta gaizki-ulertu batek eragindako sentsazio-uholdearekin jolasten du. Azken gutuna-ren ostean, Antonis Papatheodoulou eta Iris Samartzi, Album Ilustratuaren Nazioarteko Compostela Sariaren IX. edizioaren irabazleak, mami samurreko beste irakurgai dibertigarri batekin itzuli dira, formatu erakargarria eskainiz gainera, orrialde zabalgarriak dituen, eta komikira garamatzen elkarriketa-egitura.

Bi saguk bi animalia-bikoterekin egin dute topo. Haiei entzunda, Noeren Arkaren istorioa jakiten dute: uholdearen eta planetaren urperatzearen iragarpena, ontziaren eraikuntza... Ilaran aurrera, errinozero, pelikano, tximeleta, jirafa, krokodilo eta abarren artekin doazela, gero eta nahastuago daude, sinetsi ezinik, lehen euri-tantekin larritu egiten dira... egoeraren benetako testuinguruaz konturatzen diren arte.

Proposamen plastikoa collage teknikan eta birziklatzean oinarritzen da oraingoan ere: koloretako kartoi eta paperek ematen diete forma istorio honen protagonistei, eta besaulkien zenbakiei edo ikuskizunerako txartelei egindako beste keinu batzuk ere badira. Arkatz-trazu eta kolore-orbanek tonu leuneko eszenatoki natural bat eratzen dute, adierazgarritasuna gehituz pertsonaiei.



- **Gala:** antzerkiari omenaldia; erlijioa, mitoa.
- **Adin egokia:** 3 urtetik aurrera.
- **Nabarmenezkoak:** zentzu bikoitzak, nahasmena, gaizki-ulertuak, umorea; elkarriketa-formatua, prekomikia; **Azken gutuna**-rekin Compostela Sariaren IX. edizioa irabazi zuten egileena; emozioak; animaliak, natura; collagea, birziklatzea.
- **Liburuaren aurrerapena:**
<https://issuu.com/kalandraka.com/docs/arkara-sartzeko-ilaran-eusk>

Antonis Papatheodoulou

(Pireo, Grezia, 1977)

Animazioa ikasia, Hizkuntza eta Kultura Espainiarrarekin batera, Greziako Unibertsitate Irekian. 1999an hasita, hainbat hizkuntzatarata itzuli diren haur-liburuaren egilea da. Honako sari hauek jaso ditu: Public Children 's Book saria 2020an eta 2019an; Album Ilustratuaren Nazioarteko Compostela Sariaren IX. edizioa *Azken gutuna* lanagatik, Iris Samartzik ilustratua hori ere; Liburu Ilustratuaren Greziako Sari Nazionala 2011n eta 2012an, azkenekoa Iris Samartzik ilustratutako beste lan batekin; eta IBBYren sail grekoaren Liburu Ilustratuaren Saria 2015ean eta 2012an. The White Ravens zerrendetan ere agertzen dira bere liburu batzuk.

<http://www.antonispapatheodoulou.com>

Iris Samartzi

(Atenas, 1979)

Diseinu Grafikoa eta Barnekoa ikasi zuen, baita Haurrentzako Ilustrazioa ere. Haur-liburuaren ilustratzaile eta marrazketa-irakasle gisa lan egiten du Lehen Hezkuntzan. Album Ilustratuaren Nazioarteko Compostela Sariaren IX. edizioaz gain, besteak beste, IBBYren sail grekoaren Liburu Ilustratuaren Sari Nazionala jaso du 2017an, 2015ean eta 2012an, azkenekoa Antonis Papatheodoulouren testua zuen liburu batekin. Bere lanetako bat IBBYren 2014ko Ohorezko Zerrendan ere agertzen da. Astrid Lindgren Memorial Sariaren 2021. ediziorako eta Hans Christian Andersen Sariaren 2020ko eta 2022ko edizioetarako izendatu dute.

<http://www.irissamartzi.com>

